

Nork pozoindu zuen Edurnezuriren sagarra?

Eneko Amezketa

- Epailea:* Jaun-andreok, hemen bildu gara epaiketa bat argitzeko. Ez da epaiketa politikoa izango. Ez. Askoz garrantzitsuagoa da gaurkoa. Gaurko epaiketan, zera argitu beharra dugu: nork pozoindu zuen Edurnezuriren sagarra?
- Fiskala:* Urteak eta urteak ibili gara amaordea izan zela pentsatzen, baina agirizko frogak agertu dira hori guztia ezeztatuz eta, gaur, ipuinetako pertso-naien errugabetasuna zalantzan dabil.
- Abokatua:* Baietz ba! Eta hona etorri dira ustezko errudun guztiak. Gaur misterio hau konpondu behar dugu. Edurnezuriren bizitza arriskuan egon zen, pozoia dela-eta koma larrian murgil-du zen eta, Printze Urdina agertu ez balitz, Edurnezuri hila legoke.
- Epailea:* Amaordeak koartada bat zuen, eta koartada hori printze urdina izan zen. Beraz, datorrela Printze Urdina deklaratzera. Aurrera.
- Fiskala:* Egia al da, amaordeak aitortu digun bezala, zuk harekin eman zenuela egun guzti hura?
- Printze Urdina:* Bai, egia da.

Edurnezuri: *Traidore madarikatua! Orain arte ez didazu inoiz hori kontatu!*

Epailea: *Isil zaitezte auzi-gelan!!!!!!!!!!*

Printze Urdina: *Amaordeak engainatu egin ninduen: Nik uste nuen bera zela Erresumako politena, baina zu zinen politagoa.*

Mari Errauskin: *Traidore madarikatua! Horretarako egon nintzen ni gaueko hamabiak arte zurekin dantzan egiten?*

Printze Urdina: *Barkatu, maitea, zu ere politena zara.*

Epailea: *Isildu!!!!!! Printze Urdina, bi printzaresekin aldi berean ligatzea delitua da. Eta orain, itzu-li zure lekura.*

Abokatua: *Edurnezuriren txanda da. Kontaiguzu egun horretan egin zenuena.*

Edurnezuri: *Ni egun hartan ipotxen etxean nengoen bakarrik, lasai eta gustura. Inork ez zuen eza-gutzen nire bizitoki berria. Etxeko lanak egiten ari nintzen, oso lanpetuta nengibilen, oso zikinak baitira ipotx hauek —txikiak, bai, baina txerri hutsak—. Galtzontziloak edozein lekutan uzten dituzte, bizarra egin eta ez dituzte ileak jasotzen... Mundu guztiak uste du oso alaia dela ipotxen artean bizitzea... Ba, ez!!!!!! Matxista hutsak dira: lanera doaz elkarrekin eta nik etxeko lan guztiak egin behar ditut, bakar bakarrik.*

Edurnezuri agertzen da etxeko lanak egiten.

Edurnezuri: *(Abesten) La-la-la-la... Puajjjjjj!!!! Mututxo madarikatua, galtzontzilo zikinak bide erdian utzi ditu berriro! Beti dabil negarrez, ezin duela hitz*

- egin, baina eskuak baditu, ala bere «kanpain-txoa jotzeko» besterik ez ditu erabiltzen?! (Txirri nak jotzen du) Nor izango ote da? Egun on, amona.*
- Atsoa: Egun on, neska gazte eta polit hori, sagar saltzailea naiz... Nahi al duzu sagartxo bat? 2 euro besterik ez du balio.*
- Edurnezuri: Ongi da... Tori...*
- Atsoa: Eskerrik asko, neska, egun ona pasa.*
- Epailea: Aski da! Sar dadila sagar saltzailea.*
- Abokatua: Arratsalde on, amona. Zure bizitza ikertu dugu eta sagar saltzailea zarenik ez dugu inon ere aurkitu.*
- Epailea: Delitua da hori! Ez al dakizu sagarrak saltzeko beharrezkoa dela ipuinetako sagar saltzaile karneta izatea?*
- Atsoa: Banekien, bai, baina atso triste eta bakartia naiz. Aspaldi jubilatu nintzen, eta jasotzen ditudan laguntzak, jubilatuek ondo dakite, oso eskasak dira hilabete bukaerara heltzeko.*
- Fiskala: Hori ez da aitzakia. Kontatu egun hartan egin zenuena, Edurnezuriren etxera heldu baino lehen.*
- Atsoa: Ongi da... Basora joan nintzen, pixka bat ibiltzera —medikuak esan dit ona dela egunean ordu pare bat ibiltzea—, eta, hantxe, sagarrez betetako saskia aurkitu nuen.*

Atsoa mendian dabil eta sagarrez betetako saskia aurkitzen du.

- Atsoa: Mmmmmmm, zein sagar goxoak, bai zortea nirea!!!! Bi eurotan salduko dut bakoitza eta, irabazten dudanarekin, afaltzera joango naiz, jatetxe txinatar batera!!!!!!! Maite ditut «lolito*

de plimabelak» mmmmmmm! Begira, etxe bat. (Txirrina jotzen du)

Edurnezuri: Egun on amona.

Atsoa: Egun on, neska gazte eta polit hori, sagar saltzaillea naiz... Nahi al duzu sagartxo bat? 2 euro besterik ez du balio.

Edurnezuri: Ongi da... Tori...

Atsoa: Eskerrik asko, neska, egun ona pasa.

Epailea: Nahikoa da, honekin ez gara inora helduko. Nondik atera ziren ba, sagar pozoindu mada-rikatu horiek????

Abokatua: Datorrela Txanogorritxu deklaratzera...

Txanogorritxu: Kaixo, epaile jauna. Nik egia besterik ez dut kontatuko, zin egiten dut... Nire amamagatik.

Abokatua: Ongi da, eser zaitez. Ezagutzen al duzu zuk sagar saski hau?

Txanogorritxu: Bai, nirea da.

Zurumurrua. Epailea kolpeka.

Txanogorritxu: Olentzerok ekarri zidan, amamaren etxera madalenak eramateko.

Abokatua: Eta zer egiten zuen saskiak sagarrez beteta?

Txanogorritxu: Madalenak, marmelada pote bat eta lore sorta eramaten dizkiot amamari beti, baina egun hartan amak sagarrak eman zizikidan ama-mari eramateko. Neguan amama gaixorik ego-ten da, eta sagarrak oso osasuntsuak omen dira gaixotasun guztien kontra.

Abokatua: Ongi da, bai, orain arteko gutzia normala da. Baina zer egiten zuen zure saskiak basoan utzita?

Txanogorritxu: Aurreko egunean, amamari madalenak eramatera joan nintzenean, astero bezala otsoa atera zen ni engainatzera. Amamaren etxera ni baino lehenago heldu nahi du beti, amama jateko. Eta aspaldi du amama ez dagoela joko hoietarako.

Txanogorritxu abesten dator...

Txanogorritxu: La-la-la-la... Otsoak kokoteraino nauka, gaur akabatu egingo dut. Otsoa harrapatzeko gailu hau jarriko dut eta, horrela, ez dit berriro traba egingo.

Saskia utzi, eta harrapagailua jartzera doa. Bitartean, atsoa dator.

Atsoa: Mmmmmmm, zein sagar goxoak, bai zortea nirea!!!! Bi eurotan salduko dut bakoitza eta, irabazten dudanarekin, afaltzera joango naiz, jatetxe txinatar batera!!!!!!! Maite ditut «lolito de plimabelak» mmmmmmmmm! Begira, etxe bat. (Txirrina jotzen du)

Txanogorritxu: Desagertu da saskia!!!!!!

Epailea: Zelako zorabioa!!!!!! Neskato maitea, ez al dakizu ehiza-esparrutik kanpo otsoak ehizatzea delitua dela?

Txanogorritxu: Ez, ez nekien.

Epailea: Ongi da, zoaz zure lekura.

Fiskala: Datorrela Txanogorritxuren ama deklaratzera.

Fiskala: Ea norbaitek argitzen digun: nondik demontre agertu ziren sagar pozoindu horiek?????

Ama: Lasai, fiskal jauna!!!! Nik azalduko dizut,
nondik agertu ziren sagarrak.

Fiskala: Eskerrak!

Ama: Azokatik.

Fiskala: Nola? Horrenbeste nahaste-borraste horretarako?

Ama: Bai, jaun-andreok. Egunero bezala, goizean goiz
azokara joan nintzen. Ijito xelebrea aurkitu nuen han
abesten, eta itxura oneko sagarrak saltzen zituen

Ijitoa abesten.

Ijitoa: Etorri hona, señora!!!! Begira zelako manza-
nak ditut, ricas-ricas, goxo goxoak!!!

Ama: Ongi da, maja, jarrizkidazu zazpi, mesedez.

Ijitoa: Oso ondo, señorita!!!! Hiru eurito, bihotza!!!!

Ijitoak abesten jarraitzen du, eta ama etxera doa.

Ama: Begira, Txanogorritxu, amama gaixorik dabil,
eta sagar hauek eramango dizkiozu, osa dadin.

Txanogorritxu: Ongi da, ama.

Epailea: Orduan, nork pozoindu zituen sagarrak?

Ama: Jesús, María eta José.... Epaile jauna, pozoin-
zale aurpegia daukat, ala? Ijito saltzaileari
galdetu, haiek beti dabilta-eta gaiztakeriak egiten.

Ijitoa: Ijitoaren kulpa, beti ijitoaren kulpa!!!! Eta zergatik
izan behar naiz ni, e? Dime!! Zergatik??

Maitagarria: Tipo hau!!!! Badakit nor den!!!!

Epailea: Isil zaitezte auzigelan!!!!!! Ez dut iskanbila
gehiagorik nahi.

Abokatua: Datorrela maitagarria deklaratzera.

Maitagarria: Epaile jauna, sagar hoiek nik nituen, eta berak
lapurtu egin zizkidan.

Zurrumurrua.

- Ijitoa:* *Ijitoaren kulpa, beti ijitoaren kulpa!!!! Eta zergatik izan behar naiz ni, e? Dime!!!! Zergatik??*
- Abokatua:* *Zertaz ezagutzen duzu ijitoa? Eta nondik atera zenituen sagarrak?*
- Maitagarria:* *Mari Errauskini laguntzera joan nintzen, gazteluko jaira joan ahal izateko izateko jantzia behar zuen eta. Hantxe zegoen gaixoa, negarrez, jaira joan ezinik, eta, nik, magia egin eta jantzi berria eta karroza oparitu nizkion. Azkar bidali nuen jaira, baina berandu zen eta gose nintzen...*
- Maitagarria:* *Gaueko bederatziak, eta, ni, afaldu gabe. Egun osoa pasatu dut handik hona magia egiten, neka-neka eginda nago eta goseak hilik nago. Hara!!!! Sagarrak!!!! Mmmmm, zein goxoak, etxera eramango ditut eta, horrela, ez dut afaria prestatu behar...*
- Ijitoa:* *Barkatu, andrea, baina tengo gose eta hamar ume que alimentar!!!!!! (Tirakadaz saskia eramanez)*
- Maitagarria:* *Lapur madarikatua!!!! Orain zer afalduko dut nik, e??? A! Badakit! Maitagarria naiz, magia egingo dut!!!!*
- Maitagarria:* *Tirakadaz saskia eramanez zuen!!!!*
- Epailea:* *Ijito xelebrea, nola duzu izena?*
- Ijitoa:* *María del Carmen, zure esanetara!!!*
- Epailea:* *Badakizu lapurtzea delitua dela?*
- Ijitoa:* *Ijitoaren kulpa, beti ijitoaren kulpa!!!! Eta zergatik izan behar naiz ni, e? Dime!!!! Zergatik???? Y ella, qué? Berak ere lapurtu zituen!!!! La que roba a un ladrón, cien años de perdón.*
- Epailea:* *Egia da, kontuan izango dut. Maitagarriak ere*

delitua egin du. Itzuli eserlekuetara. Baina, zure umeak elikatzeke lapurtu bazenituen, zergatik saldu zenituen azkenean?

Ijitoa: Hobeto pentsatu nuen. Saldu eta más ganancias.

Epailea: Ez dugu inoiz honekin bukatuko? Nondik demontre atera dira sagar horiek? Eta nork pozoindu ditu!!!!

Fiskala: Datorrela Mari Errauskin deklaratzera.

Mari Errauskin: Ni langilea besterik ez naiz!!

Fiskala: Horrela jantzita, ez duzu langilea ematen.

Mari Errauskin: Maitagarriak oparitutako jantzia da, hauxe da daukadan jantzi dotore bakarra, beste guztiak zatarrak dira.

Fiskala: Eta daukazunetik ez duzu kentzen, bistan denez. Ez duzu sagarren istorio aspergarri honen jatorria jakingo, ez?

Mari Errauskin: Ba ez, ez dakit. Ni amaordeak zigortu ninduen, ezin nuen jaira joan.

Fiskala: Eta badakizu jai horretara amaordearen bai menik gabe joatea delitua dela?

Mari Errauskin: Bai, baina Printze Urdinarekin ligatu nahi nuen.

Edurnezuri: Lotsagabea!!!! Printze Urdina nirea da!!!!!!

Epailea: Isilik, mesedez. Jarraitu, andereño.

Mari Errauskin: Ba, hori, sagarrak amaordeak ekarri zizkidala, sagar-tarta bat egiteko.

Amaordea: Salati hori!!!! Ikusiko duzu gero, etxean!!!!

Epailea: Kontuz esaten duzunarekin. Mehatxatzea ere delitua da. Azaldu, ba, zer dakizun horri buruz.

Amaordea: Basora atera nintzen ibilitxo bat egitera. Etxe ondoan baso txundigarria daukagu, haritz altuz beteta. Eukalitadia ere dago, eta arnasa hobeto egiteko oso-oso ondo datorkit zuhaitz ho-

rien azpitik paseatzea. Bronkitisa izaten dut, eta medikuak esan zidan eukaliptoan... (epailea lokartzen da, eta begira gelditzen zaizkio)

Fiskala: Shhhhhhhh! (Mailuarekin epailea ikaratzen dute)

Epailea: (Esnatu egiten da) ... *Aski da, emakume. Mami, mesedez.*

Amaordea: *Ba, horixe! Basora atera nintzen ibiltxo bat egitera eta...*

Amaordea: *Hara!!! Sagar-saskia!!! Badakit zer aginduko diodan Mari Errauskini, jaira etor ez dadin: sagar-tarta egiteko!!!! Sukaldari traketsa denez, asko luzatuko da, eta etxean geldituko da, jaira etorri gabe. Kar-kar-kar-kar... Mari Errauskin, jaira etorri nahi baduzu, sagar-tar-ta hau egin beharko didazu.*

Mari Errauskin: *Baina jaia ordu erdi barru hasiko da, ez dit astirik emango.*

Amaordea: *Orduan, ezin duzu jaira etorri, lotsagabe halakoa!*

Mari Errauskin: *Ai ene!!!! Zelako zorigaitza, Printze Urdina ezagutu behar nuen gaur, Edurnezuri madarikatu horri kentzeko!!!!!! Buaaaaaaaaa!!!!!!!*

Maitagarria: *Kaixo, Mari Errauskin, zure maitagarria naiz, eta zu laguntzera etorri naiz.*

Mari Errauskin: *Hara!!!! Nire maitagarria!!! Eskerrik asko....*

Epailea: *Istoria hau amaigabea da. Non-dik-a-te-ra-di-ra-sa-gar-hau-ek??????*

Mututxo: (Kanpaia jo) *Nik badakit, epaile jauna!!!!!!*

Edurnezuri: *Baina zu ez al zinen mutua?*

Mututxo: *Engainatu zaitut! Banekien ba, gaiztakeriaren bat asmatzen ari zinela!*

Epailea: *Ipotx jauna, gezurretan aritzea ere delitua da.*

Mututxo: *Berak pozoindu zituen sagarrak!!!! (Zurrumurrua)*

Abokatua: *Nola dakizu hori?*
Mututxo: *Berak mutua nintzela uste zuen, eta trikimai-lua egiten saiatu zen. Sagarrak nire aurrean pozoindu zituen...*

Denok- txun-txun txun-txun txun-txun txun-txun...

Eduenezuri: *Kokoteraino naukazue, ipotx nazkagarriok!
Zazpi sagar hauek pozoinduta eramango dituzue gaur lanera, eta hamarretakoan bakoitzak bat jango du. Mutua zarenez, ezin dituzu lagunak abisatu. Guztiek jango dute sagarra, zu izan ezik (pozoinduta daudela badakizunez ez zara ja-ten ausartuko). Lagunak zure aurrean hilko dira, eta ezingo duzu ezertxo ere egin. Bizirik aterako zarenez, erruduna zu izan zarela pentsatuko dute, eta ni aske biziko naiz etxe polit honetan.*

Epailea: *Orain ulertzen dut!!!!!! Orduan, berak pozoindutako sagarrekin bere burua pozoindu zuen!!!!!!!!!! Baina nola lotzen dugu hau guztia?*

Mututxoa: *Neska madarikatua! Leloa naizela uste du, ala?, Saskia ahaztuta utziko dut hemen.*

Amaordea: *Hara!!! Sagar-saskia!!! Badakit zer aginduko diodan Mari Errauskini, jaira etor ez dadin: sagar-tarta egiteko!!!! Sukaldari traketsa denez, asko luzatuko da, eta etxean geldituko da, jaira etorri gabe. Kar-kar-kar-kar... Mari Errauskin, jaira etorri nahi baduzu, sagar-tar-ta hau egin beharko didazu.*

Mari Errauskin: *Baina jaia ordu erdi barru hasiko da, ez dit astirik emango.*

Amaordea: *Orduan, ezin duzu jaira etorri, lotsagabe halakoa!*

Mari Errauskin: *Ai ene!!!! Zelako zorigaitza, Printze Urdina ezagutu behar nuen gaur, Edurnezuri madarikatu horri kentzeko!!!!!! Buaaaaaaaaa!!!!!!!*

Maitagarria: *Kaixo, Mari Errauskin, zure maitagarria naiz, eta zu laguntzera etorri naiz.*

Mari Errauskin: *Hara!!!! Nire maitagarria!!! Eskerrik asko....*

Maitagarria: *Gaueko bederatzia, eta, ni, afaldu gabe. Egun osoa pasatu dut handik hona magia egiten, neka-neka eginda nago eta goseak hilik nago. Hara!!!! Sagarrak!!!! Mmmmm, zein goxoak, etxera eramango ditut eta, horrela, ez dut afaria prestatu behar...*

Ijitoa: *Barkatu, andrea, baina tengo gose eta hamar ume que alimentar!!!!!! (Tirakadaz saskia eramanez)*

Maitagarria: *Lapur madarikatua!!!! Orain zer afalduko dut nik, e??? A! Badakit! Maitagarria naiz, magia egingo dut!!!!*

Ijitoa: *Etorri hona, señora!!!! Begira zelako manzanak ditut, ricas-ricas, goxo goxoak!!!*

Ama: *Ongi da, maja, jarrizkidazu zazpi, mesedez.*

Ijitoa: *Oso ondo, señorita!!!! Hiru eurito, bihotza!!!!!!*

Ijitoak abesten jarraitzen du, eta ama etxera doa.

Ama: *Begira, Txanogorritxu, amama gaixorik dabil, eta sagar hauek eramango dizkiozu, osa dadin.*

Txanogorritxu: *Ongi da, ama.*

Txanogorritxu abesten dator...

Txanogorritxu: La-la-la-la... Otsoak kokoteraino nauka, gaur akabatu egingo dut. Otsoa harrapatzeko gailu hau jarriko dut eta, horrela, ez dit berriro traba egingo.

Saskia utzi, eta harrapagailua jartzera doa. Bitartean, atsoa dator.

Atsoa: Mmmmmmm, zein sagar goxoak, bai zortea nirea!!!! Bi eurotan salduko dut bakoitza eta, irabazten dudanarekin, afaltzera joango naiz, jatetxe txinatar batera!!!!!!! Maite ditut «lolito de plimabelak» mmmmmmmmm! Begira, etxe bat. (Txirrina jotzen du)

Txanogorritxu: Desagertu da saskia!!!!!!!

Txirrinak jotzen du.

Eduinezuri: Egun on, amona.

Atsoa: Egun on, neska gazte eta polit hori, sagar saltzailea naiz... Nahi al duzu sagartxo bat? 2 euro besterik ez du balio.

Eduinezuri: Ongi da... Tori...

Atsoa: Eskerrik asko, neska, egun ona pasa.

Epailea: Hau bai zoramena! Baina, azkenean, desegin dugu korapiloa. Orain eztabaidatzera baztertuko gara. Momentu bat, mesedez.

Ipuinaren dantza.

Epailea: Ongi da. Hona hemen epaia: Eduinezuri, sagarrak pozointzeagatik: erruduna. Atsoa, sagar saltzaile karnetarik gabe saltzen ibiltzeagatik:

*erruduna. Txanogorritxu, esparrutik kanpo
ehizateagatik: erruduna. Txanogorritxuren ama,
legez kanpoko azoketan erosteagatik: erru-duna.
Ijitoa, lapurtzeagatik: erruduna. Printze Urdina,
bi neskarekin batera ligatzeagatik: erruduna.
Maitagarria, berea ez dena hartzeaga-tik:
erruduna. Mari Errauskin, baimenik gabe jaira
joateagatik: erruduna. Mari errauskinen
amaordea, mehatxuak egiteagatik: erruduna.
Ipotx mututxoa, gezurretan aritzeagatik: errudu
na. Horrelaxe bukatzen da misterio nahasi hau.
Orain, denak kartzelara!!!!!!!!!!!!*

Kartzelaren dantza.

